

...../..... FORU DEKRETUA,K EMANA, NAFARROAKO ETXEBIZITZA KONTSEILUAREN OSAERA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUENA.

Hitzaurrea

Etxebizitzaren alorrean herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen dituen abenduaren 21eko Foru Legeak aldaketa garrantzitsuak egiten dizkie Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuari.

Aldaketa horietako bat da 86. artikulua berria eranstea foru lege horri. Artikulu horretan, Nafarroako Etxebizitza Kontseilua aurreikusten da, Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholkularitzarako organo gisa etxebizitza arloan, arlo horretan eskuduna den departamentuari atxikia. Kontseiluaren osaera deskribatzen da, eta eginkizunak esleitzen. Kontseiluari eduki zehatza emateko, haren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautu behar dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak gardena izan nahi du informazioarekin eta herritarren parte-hartzearen eta lankidetzaren alde egiten du politika publikoen diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan, administratzeko modua irekiagoa izateko, parte-hartzea handitzeko, eta hurbiltzeko sektoreen eta taldeen behar eta problemetara.

Horrenbestez, Eskubide Sozialetako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 2017koarenan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat, dekretatu dut

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da Nafarroako Etxebizitza Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

2. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Kontseiluaren izaera eta atxikipena.

1. Nafarroako Etxebizitza Kontseilua kide anitzeko organoa da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontsultarako eta partaidetzarako duena, baita Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitza arloan egiten diren politiken berri izan, eta horren gaineko eztabaida, segimendua, aholkularitza eta proposamenak jaso nahi dituzten gizarte sektoreek ere.

2. Nafarroako Etxebizitza Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan etxebizitza arloan eskudun den departamentuari atxikiko zaio, eta horrek emanen dizkio jarduteko behar dituen aholkularitza eta bitartekoak.

II. kapitulua. Eginkizunak

3. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Kontseiluaren eginkizunak.

Nafarroako Etxebizitza Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

1. Nafarroako Etxebizitza Planean aktiboki parte hartzea, baita haren segimenduan eta ebaluazioan ere.
2. Nafarroako Etxebizitza Planaren edukiari buruzko irizpen bat ematea Nafarroako Gobernuak hura onetsi aurretik.
3. Etxebizitza-arlokoak diren izaera orokorreko xedapenen proiektuei eta horien aldaketei buruzko irizpen bat ematea aldez aurretik.
4. Proposamenak, gomendioak eta iradokizunak egitea, dela etxebizitza arloan eskuduna den departamentuari, dela gainerako administrazio publikoei, etxebizitza arloko edozein gairi buruz.
5. Arloan eskudun diren administrazioetako edozeinek eskatzen dizkion etxebizitza-arloko txosten eta kontsulta guztiak egin eta erantzutea, hurrenez hurren.
6. Etxebizitzaren sektorean diharduten eragileen etengabeko elkarrizketa sustatzea.
7. Koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea administrazio publikoen artean eta etxebizitza arloan esku hartzen duten gizarte eta ekonomia arloko eragileen artean.
8. Ekimenak, neurriak edo programak proposatu eta sustatzea etxebizitza arloan sentikortasunari, informazioari eta hobekuntzari dagokienez.
9. Begiratzea etxebizitzaren arloko informazioa gardena dela eta behar bezala zabaltzea eta Nafarroako gizartearen eskura jartzeko dela.
10. Eztatzeak eta adostasuna agertzea, kasua bada, etxebizitzaren arloan eskudun den departamentuak Kontseiluari hurrengo ekitaldiko lehenbiziko hiru hilabeteetan kontuak emateko kontzeptuan aurkeztu beharreko urteko txostenarekin.
11. Legeen edo erregelamenduen mailako xedapenen bidez esleitzen zaion edozein eginkizun.

III. kapitulua. Osaera

4. artikulua. Osaera.

1. Buruak, buruordeak eta 28 kideak, gehienez, osatuko dute Nafarroako Etxebizitza Kontseilua.

2. Etxebizitzaren arloan eskudun den departamentuaren titularra izanen da burua. Horrek buruordea izendatuko du Kontseiluko kideen artean.

3. Honako hauek izanen dira kideak:

a) Etxebizitzaren arloan eskudun den departamentuaren lau ordezkari, departamentu horren titularrak izendatuak.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpean babestutako etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko helburu soziala duen sozietate publikoaren ordezkari bat.

c) Etxebizitzak zaharberitzeko udal edo eskualde bulegoen bi ordezkari (ORVE).

d) Sektorean ordezkagarritasun handiena duten enpresaburuen erakundeen bi ordezkari.

e) Nafarroako Foru Komunitatean babestutako etxebizitza alokatzen duten enpresa garrantzitsuenen ordezkari bat.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen eta Hipotekek Kalteturikoen Plataformen hiru ordezkari.

g) Ordezkari bat Nafarroako lanbide elkargo hauetako bakoitzeko:

Arkitektoen Elkargo Ofiziala.

Aparejadore, Arkitekto Tekniko eta Eraikuntza Ingeniarien Elkargo Ofiziala.

Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofiziala.

Finka Administrazioailean Elkargo Ofiziala.

h) Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko hitzarmena sinatu duten Nafarroako finantza entitate garrantzitsuenen bi ordezkari.

i) Nafarroan Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Batzordearen ordezkari bat.

j) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat.

k) Ordezkaritza sindikala duten sindikatuen lau ordezkari.

l) Gizarteratzeko etxebizitzaren hitzarmena sinatu duten entitateen ordezkari bat.

m) Nafarroako Gazte Kontseiluaren ordezkari bat.

n) Kontseiluko buruak izenda ditzake gainerako kideak bilkura batean, baimentzen den gehieneko kopurua egin arte, baldin eta bilkura horren gairerendak hori berariaz jasota badu.

Kide bakoitzeko, titular bat eta ordezeko bat izenda daitezke. Kargua hutsik dagoenean edo titularra kanpoan edo eri dagoenean arituko da ordezekoa.

2. Etxebizitzaren Araubide Juridikoaren Atalaren titularra arituko da idazkari Nafarroako Etxebizitza Kontseiluan, hizpidea duela baina botorik ez.

3. Etxebizitzaren arloan eskudun den departamentuaren titularrak foru agindu bidez izendatuko ditu kideak, ordezkatzan dituzten entitateek edo erakundeek proposatu ondoan.

Lau urteko agintaldia izanen dute kideek, eta hura iraupen bereko epetan berritzen ahal da. Kargualdia bukatzeagatik ez beste edozein arrazoirengatik uzten bada kargua, titular berria ordezkatzan duen kidearen kargualdia bukatu arte arituko da.

4. Orobat, honako kasuotan utzi beharko dute kargua Nafarroako Etxebizitza Kontseiluko kideek:

a) Ebazpen judizial irmo baten bidez deklaraturako ezgaitasunagatik edo heriotzagatik.

b) Norberak eskatuta.

c) Lanbidean edo politikan aritzeko desgaitasuna ekarri duen zigorra jasotzeagatik, epai irmo baten bidez.

d) Ordezkaritza galtzeagatik.

e) Foru dekretu honetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzeagatik.

Hautatua izateko epea bukatuz gero, kideek beren eginkizunetan jarraituko dute kide berriak karguaz jabetzen diren arte.

5. Postu hutsak betetzeko, foru dekretu honetan izendapenak egiteko adierazitako prozedura berbera erabiliko da.

6. Ahal dela, gizonek eta emakumeek ordezkariak paritarioa izanen dute.

5. artikulua. Ordezkapenak.

1. Burua ez dagoenean, buruordeak ordeztuko du.

2. Idazkaritzaren titularra ez dagoenean, Zuzenbideko lizentziadun batek ordeztuko du, etxebizitzaren arloan eskudun den departamentuan aritzen bada titulazio hori eskatzen duen lanpostu batean.

IV. KAPITULUA. Antolaketa eta funtzionamendua

6. artikulua. Bilkuren araubidea.

1. Nafarroako Etxebizitza Kontseiluak foru dekretu honen xedapenen arabera onetsiko du bere barne araubidearen erregelamendua.

2. Nafarroako Etxebizitza Kontseiluak urtean behin egingen du osoko bilkura arrunta, eta osoko bilkura berezia, buruak hala erabakitzen duenean, bere ekimenez edo hala eskatzen badute kideen herenek gutxienez.

2. Nafarroako Etxebizitza Kontseilua balioz era dadin, beharrezkoa izanen da beti burutzaren eta idazkaritzaren titularrak egotea, edo haiek ordeztzen dituztenak. Lehenbiziko deialdiak balioa izateko, kide gehienek egon behar dute, eta, bigarren deialdian berriz, kideen herenek gutxienez.

3. Kontseiluak bertaratzen diren kideen gehiengoaren bidez hartuko ditu erabakiak eta horien arrazoiak emanen dira. Boto partikularrak erants daitezke, gehiengoz hartutako erabakiaren kontrakoak badira.

Berdinketarik egonez gero, burutzaren kalitatezko botoak erabakiko du.

4. Akta egingen da bilkura bakoitzean, non hartutako erabakiak jasoko baitira. Interesa duen Kontseiluko edozein kidek eskatuta, aktan honako hauek jaso daitezke: hartutako erabakiaren kontrako botoak, abstentzioak eta horiek justifikatzen dituzten arrazoiak, edo aldeko botoaren azalpena.

5. Kontseiluko edozein kidek proposatuta eta Kontseilua onetsi ondoan, lan taldeak era daitezke gai zehatz batzuetarako. Kontseiluaren erabakiaren bidez zehaztuko dira haien osaera, funtzionamendua eta helburua. Kontseiluari aldian-aldian emanen zaio haien lanen, ondorioen eta agirien berri. Kontseilutik kanpoko pertsonak onar daitezke osaeran, baina halakoak ez dira lan taldeko kideen erdia baino gehiago izanen.

7. artikulua. Kontseiluburuaren eginkizunak.

Buruak eginkizun hauek izanen ditu:

1. Nafarroako Etxebizitza Kontseiluaren buru izatea.

2. Kideak izendatzea eta beren karguetatik bereiztea, horiek ordezkatzten dituzten erakundeek, entitateek edo enpresek proposatuta.

2. Bilkuren deialdia hitzartzea eta gai-zerrenda finkatzea. Horretarako, Kontseilua osatzen dutenen eskaerak hartuko ditu kontuan, behar bezain goiz egiten badira.

3. Bilkuretan buru aritzea, eztabaidak gidatzea eta horiek etetea arrazoi justifikatuengatik, eta bere botoarekin desegitea sortzen diren berdinketak, erabakiak hartzeko orduan.

4. Organoak hartzen dituen erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.

5. Kontseiluko burutzaren titularra izateagatik berezko dituen beste eginkizunak betetzea, edo indarreko araudiak esleitzen dizkionak.

8. artikulua. Buruordearen eginkizunak.

Buruordeak eginkizun hauek izanen ditu:

1. Buru dena ordezkatzeari, kargua hutsik dagoenean, hura eri edo kanpoan dagoenean, edo beste arrazoi justifikatu batzuetan.

2. Kontseiluak kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendu ona izan ditzan, buruak edo Kontseiluaren Osoko Bilkurak esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.

9. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

Idazkariak eginkizun hauek izanen ditu:

1. Kontseiluaren bilkuretara joatea, hizpidea duela baina botorik ez.

2. Bilkuretarako deia egitea, buruak hala aginduta, eta Kontseiluko kideentzako zitazioak egitea.

3. Kontseiluko kideen komunikazio egintzak jasotzea, hau da, jakinarazpenak, datu eskaerak, zuzenketak edo haren ezagutza behar duten bestelako idazki guztiak.

4. Gaiak ebazteko bidea prestatzea, bilkuren aktak egin eta baimentzea, eta onetsitako erabakien, irizpenen eta kontsulten ziurtagiriak egitea.

5. Kontseiluaren dokumentazioa zaintzea.

6. Idazkaritzaren titularra izateagatik berezko dituen beste eginkizunak betetzea, edo indarreko araudiak esleitzen dizkionak.

10. artikulua. Kontseiluko kide ez direnek parte hartzea.

Jorratu edo aztertu beharreko gaien arabera, edozein kidek eska diezaioke buruari adituek edo interesdunek parte har dezaten. Horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez.

Xedapen gehigarri bakarra. Eraketa.

Nafarroako Etxebizitza Kontseilua bi hilabeteko epean eratuko da, foru dekretu honek indarra hartzen duenetik hasita.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrari ahalmena ematen zaio behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.